

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresa aurrera eraman ahal izateko hainbat eginkizun burutu beharko ditugu:

Lehenik eta behin, gure enpresaren planifikazioa egin beharko dugu, hau da, enpresa nolakoa izango den: kokapena aukeratu, zer baliabide eskuratu beharko ditugun zehaztu, aliantzak zeintzuk izango diren eta funtsezko baliabideak argi utzi.

Hori egin eta gero, arlo bakoitza gauzatzeaz arduratu beharko dugu. Kokapena zehaztu eta gero, leku hori alokatu edota erosi egin beharko dugu. Bestalde, baliabideak eskuratzeko hainbat enpresa desberdinekin harremanetan jarri ondoren, baliabide horiek eskuratu beharko ditugu, hau da, enpresa horiekin negoziaketa bat gauzatu beharko dugu.

Ondoren, baliabide guztiak gure eskuetan ditugarik modu efizienteenean baliabide horiek antolatu eta batu egin beharko ditugu gure enpresa osatu ahal izateko. Lan hau egindakoan, gure enpresaren baliabide guztiak modu egokienean erabiltzen ditugula ziurtatu beharko dugu, gure baliabideak alferrik ez erabiltzeko eta era berean gure dirua modu aurreztaile batean erabiltzeko. Proba hauek guztiak burututakoan gure enpresaren barruko estruktura bukatutzat eman dezakegu.

Azkenik, gure enpresaren barruko estruktura guztia finkatuta dugunean gure kanporako dugun irudia landu beharko dugu. Horretarako, marketin proiektu bat eraman beharko dugu aurrera. Web orri bat sortuko dugu gure enpresaren berri emateko. Honez gain, gure egunerokotasunean hainbeste erabiltzen diren sare sozial bidez ere publizitatea egingo dugu.

